

ESKUALDEKO IBAI PARKEKO ZERBITZUEN KARTAREN JARRAIPENA. 2015

IBAI PASEALEKUAREN GARBIKETA ETA MANTENIMENDUA

1. KONPROMISOA

Parkea garbi dagoela eta mantentze lan orokorrak egiten direla ziurtatzea, horretarako, zaborrak bilduta, eta landareak zaintzeko lanak, zorua zaintzekoak eta beharrezkoak diren beste mantentze lan batzuk eginda.

Garbiketa eta mantentze orokorreko lan arruntak ezarrita dagoen maiztasunaren arabera egiten dira:

- *Zaborrak astean bitan jasotzen dira, eta bisitari gehien izaten den garaian, martxoa eta iraila artean, baita larunbatetan ere.*
- *Abuztuan, ur maila beherena baliatzen da, ibaiaren uberka eta ertzak sakon garbitzeko.*
- *Parkea garbitzean, ekaina eta abuztua bitartean, igandeetan, jarduketa berezia egin da. Barnean sartu dira asteburuetan zabalik dauden zerbitzuen garbiketak.*

Zoladura zaintzeko lan hauek egin dira:

- *Arreko Udalaren biltegirako sarbidean.*
- *Dorraburuko presarako sarbidean.*
- *Ollokiko zatian (Cinfa enpresaren atzealdean).*
- *Berroako bidean.*
- *Arletako Jaurerrirako sarreran.*
- *Ollokiko eremurako sarbidean.*

Urtean zehar egindako beste jarduketa batzuk hauek izan dira:

- *Elortz ibaian oinzubi bat kokatzea.*
- *Segurtasun hesia jartzea, Eultzako Jaurerritik Eultzako jolas eremura dagoen jaitsieran.*
- *Larrintzarko eremuaren eta Belosoko zatiaren artean argiak jartzea (Burlatako udal barrutia).*
- *Komunak eraikitzea Orikaingo hondartzan eta Burlatako Intxaurdian.*

2015ean, zerbitzuekiko asebetetze maila ezagutzeko egindako inkestaren arabera, 0 eta 10 arteko eskala batean, 7,8ko balorazioa eman da.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

2. KONPROMISOA

Parkeko altzariak eta dotazioak zaintzea (haurrentzako guneak, seinaleak, komunak, argiak, oinzubiak, iturriak...), etengabe berrikusita, ongi daudela ziurtatzeko edo erabiltzean segurtasunari kalte egiten dion edozein kalte konpontzeko.

Parkeko mantentze lanetan aritzen diren langileek zenbait berrikuste orokor eta etengabe egin dituzte, dotazio berezietarako (haurrentzako jokoak) enpresa espezialistak hiru hilean behin egiten dituen gain.

Ibai parkeko jolas eremuetako zerbitzuak hobetzen jarraitu da 2015ean, ikusitako premien arabera. Hain zuzen, hauek egin dira:

- *Jolas eremuetako altzariei dagokienez, hamar mahai kokatu dira, zortzi banku eta zakarrontziren bat (herritarrek eskatu dutelako).*
- *Hondakinak gaika biltzeko zakarrontziak jarri dira Orikaingo hondartzan, Irotzen eta Txubindoan.*
- *Txirindularien abiadura kontrolatzeko, goraguneak edo koskak jarri dira parkeko zazpi gune kritikotan.*

2015ean, zerbitzuekiko asebetetze maila ezagutzeko egindako inkestaren arabera, 0 eta 10 arteko eskala batean, 7,5eko balorazioa eman zaie alderdi hauei.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

3. KONPROMISOA

Uholdeak gertatzen direnean, haize gogorra dabilenean... gehienez ere bost eguneko epean, egoeraren balorazioa egitea eta ohiz kanpoko jarduketak egiteko ekintza plan bat egitea.

Urtearen hasierako euri jasa handien ondoren, ondorioen eta kalteen txostena idatzi zen eta gero konpontzen joan ziren. Berrezartzeko jarduketak, batez ere, hauek izan ziren:

- *Pasealekuaren garbiketa orokorra, barnean hartuta tamaina handiko elementuak kentzea.*
- *Haurrentzako jokoak eta seinaleak garbitzea.*
- *Zuhaitzak kentzea uberkatik.*
- *Itxiturak, hesiak eta altzariak berriz jartzea.*
- *Ertzetan izandako lur jauziak eta zoladuran izandako kalteak konpontzea.*

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

ONDARE HISTORIKOA ZAINZEA ETA LEHENGORATZEA

4. KONPROMISOA

Ibai parkean dagoen ondare historikoa, hala nola zubiak, errotak eta abar, zaintzeko eta lehengoratzeko jarduketak gauzatzea.

Urtean zehar, zoladuran eta altxaeretan garbiketa-saneamenduak egin dira, eta zubi branketan zeuden enborrak eta sastrakak kendu dira, parkearen eremuan dauden Erdi Aroko zubi guztietan.

Beste alde batetik, Arazuriko Zubiandi zubian, eskuineko ertzean dagoen babes horma konpondu da, tamaina handiko enbor batek kolpea eman eta hondatuta baitzegoen.

Azkenik, Uharteko Dorraburu zubia berritzeko proiektua idazten amaitu da eta 2016an egingo dira lanak.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

IBAI IBILBIDEEI LOTUTAKO LANDAREAK ETA ANIMALIAK BABESTEA

5. KONPROMISOA

Bioingeniaritzako jarduketak egitea (landare material biziak eraikitzeke teknikak), landatzeak, ereiteak, habiak jartzea... ibai ekosistemen ingurumen kalitatea bermatzeko, babes berezia behar duten habitat berezi-bereziak baitira.

Hainbat jarduketa egin dira, eta haietatik lehen biak uholdeek eragindako kalteen ondorioz:

- *Arga ibaiaren ertzak egonkortzeko lanak, Intxaurdiko zubiaren inguruan.*
- *Ezpondak egonkortzeko lanak Dorraburun, Ezkabarten eta Zubiartean.*
- *Saguzarren habiei dagokien mantentze lanak egin dira, eta urte osoan ez habia berririk kokatu.*

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

PARKEAREN ETA SENTSIBILIZAZIO ZENTROEN SUSTAPENA ETA DINAMIZAZIOA

6. KONPROMISOA

Ibaiekin edo beste gai batzuekin lotuta –edukiak egoki jotzen direnean–, ibai parkearen inguruan egin beharreko jarduerak sustatzea eta horietan laguntzea:

- **Boluntariora jardunaldiak.**
- **Natura jendarteratzeko eta ingurumen sentsibilizaziorako jardunaldiak.**
- **Jolas eta kirol jardunaldiak.**

2015ean, Iruñerriko Mankomunitateak 14 erakusketa eta 15 jarduera desberdin antolatu ditu ibai parkearen eremuan, eta jarduera horiek barnean hartu dituzte kontzertuak, tailerrak eta askotariko ekitaldiak.

2015ean, zerbitzuekiko asebetetze maila ezagutzeko egindako inkestaren arabera, 0 eta 10 arteko eskala batean, 7,5eko balorazioa eman zaie jarduera hauei.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

7. KONPROMISOA

Atarrabiako Pilategian eta San Andres Errotan dauden parkearen interpretazio zentroak dinamizatzea eta haietan mantentze lanak egitea.

2015ean, zentro hauetan 14 erakusketa egin dira, eta haietara 5.027 lagun joan dira.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

8. KONPROMISOA

Parkea mugikortasun iraunkorrerako eremu eta arkitekturako oztoporik gabe gisa sustatzea:

- **Parkea beste udalerrri batzuetara zabaltzea, eta oinezkoen eta bizikleten tokiko sareekin lotzea, eskualdeko sare bat sortzeko.**
- **Mugikortasun murriztuko pertsonak aintzat hartuta, pasealekua eta aisiarako eremuak diseinatzea eta egokitzea.**

2015aren hasieran, ibai parkea handitzeko zatia inauguratu zen: lau kilometroko zati bat da, Barañaingo alderdian dagoena, Arga ibaiaren eskuineko ertzean eta Arazuriko zubi zaharreraino heltzen dena (Zubiandiko eremua).

Arreta berezia jarri da sarbideak eta ibilbideak mugikortasun murriztuko pertsonen egokituta egoteko.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

ERREKLAMAZIO, IRADOKIZUN ETA KEXEN KUDEAKETA

9. KONPROMISA

Kasuen %85ean, gutxienez, pertsona partikularren eta tokiko erakundeen erreklamazioei, iradokizunei eta/edo kexei hamar eguneko epe maximoan erantzutea.

2015ean, 44 eskaerari eman zaie arreta, eta 39i erantzun zaie epearen barnean, hau da, %89ri.

Horrenbestez, konpromisoa betetzat jotzen da.

BI URTEAN BEHIN EGITEN DEN ASEBETETZE OROKORRAREN INKESTAREN ARABERA, PARKEKO ERABILTZAILE MODUAN EMAN DEN BALORAZIOA, ESKUALDEKO ZATIETAN, 2015EAN, 8,0KOA IZAN DA 10ETIK (2013AN, 7,7KOA IZAN ZEN, ETA, BERAZ, 2015EKOA HANDIAGOA DA).